



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**2024KO URTARRILAK 18AN  
EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK**

**Udalek izendaturiko ordezkariak**

**DORLETA ELKOROBARRUTIA PAGOAGA**

**LEHENDAKARIA**

**Ordezkariek**

**Udalak**

**IÑIGO RUIZ BARRON  
XABIER IGARTUA LOIDI  
MARKEL AZKARGORTA CID  
AINHOA LETE ZABALETA  
GORKA ARTOLA ALBERDI  
GARAZI ETXEBERRIA SAN MIGUEL  
KEPA URTEAGA GARCIA  
JASONE GIRALDO MENENDEZ  
MAIDER MORRAS AZPIAZU  
EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA  
ARITZ IGELTZ LAZKANO  
GARIKOITZ ITURBE ETXEBARRIA  
ION ALBIZU GONZALEZ**

**OÑATI  
OÑATI  
BERGARA  
BERGARA  
BERGARA  
ARRASATE  
ARRASATE  
ARRASATE  
ARRASATE  
ESKORIATZA  
ANTZUOLA  
ARETXABALETA  
ARETXABALETA**

**Etorri ez direnak:**

- Izaro Elorza Arregi
- Ibon Unzetabarrenetxea

Debagoieneko Mankomunitatearen egoitzan, 2023ko abenduaren 21ean, 12:30etan, Mankomunitatea osatzen duten udalek izendaturiko **hamalau ordezkari** bildu dira

Oharra: Iñigo Ruiz Barron gai ordeneko 8. puntua bozkatzeko helden da.

**1.- Aurreko bilkurako akta onartzea**

Inork ez du ezer esateko aurreko aktari buruz, beraz onartutzat ematen da.

**2.- Dekretuen berri ematea.**





Inork ez du ezer komentatzeko Dekretuei buruz.

### 3.- Debagoieneko Mankomunitatea Hobeki Elkartera atxikitzea onartzea.

#### GOBERNU JUNTARAKO IRIZPEN PROPOSAMENA

HOBEBI Hondakinen Kudeaketa Jasangarri eta Arduratsua sustatzeko Udal Elkarteko kide izateko proposamena

#### IKUSIRIK

HOBEBI Hondakinen Kudeaketa Jasangarri eta Arduratsua sustatzeko Udal Elkarte bat da.

Elkarteak hondakinen kudeaketari lotutako zenbait printzipio ditu oinarri, betiere kudeaketa jasangarri eta arduratsu horren bidean. Honela, osasunaren eta ingurumenaren zaintza lehenesten duen elkarte da Hobeki, hondakinen kudeaketa herritarrak eta herri erakundeak eskutik helduta, era kolektiboan, bideratu nahi duena. Kudeaketak hondakinen zikloa bere osotasunean hartu behar duela kontuan izanda, ikuspegi zirkularra landuz, hondakinak lehengai bihurtuz. Horretarako, edozein tratamenduren abiapuntua murrizketa dela ulertzen du Elkarteak, hondakinik onena sortzen ez dena premisapean.

Hobeki Elkaratearen dekalogoia ondorengo da:

1. Osasuna eta ingurumenaren zaintza lehenestea.
2. Herritarrok eta herri-erakundeok eskutik joatea.
3. Herritarrak ahalduntzea, hondakinen kudeaketan.
4. Kudeaketak hondakinen ziklo osoa barneratzea.
5. Abiapuntua hondakin murrizketa da, hondakinik onena sortzen ez dena baita.
6. Bilketa eraginkorra sustatzea.
7. Murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea, ordena horretan, lehenestea.
8. Europako jarraibideek agindutakoarekin bat, balorizazio materiala hobestea, balorizazio energetikoaren kaltetan. Zabortegi kutsakor konbentzionalak desagerraraztea.
9. Azpiegitura lokalak lehenestea eta azpiegitura eskalagarrien alde egitea, azpiegitura zurrunk baztertuz.
10. Aurrerakuntza teknologikoa hobestea.

Hobeki Elkarteak honako helburu hauek ditu, besteak beste, bere estatutuen arabera:

- Hiri hondakinen kudeaketa koherente, arduratsu eta, hitzetatik harago, ingurumen eta hondakinen hierarkia eta printzipioak errespetatuko dituen praktikak defendatu, sustatu eta bultzatzea.
- Hiri hondakinen kudeaketa arduratsuari buruz elkartekideen esperientzien trukaketa sustatu, erraztu eta ahalbideratzea.
- Gaiaren inguruan dauden esperientzia desberdinei buruzko (nazioartekoak barne) azterketa eta ezagutza sustatu eta bultzatzea, eta koherenteak eta benetan hiri hondakinen hierarkiarekin eta printzipioekin bat datozen jarduerak eta sistemak bultzatzea.
- Hondakinen kudeaketari buruzko azterketak eta gogoetak egitea, praktika onak eta txarrak bereizteko, eta egingo diren proposamenei koherentzia emateko.





## DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

- Hondakinen gaian herritarren parte-hartze aktiborako baliabideak eskaintzea eta partaidetza erraztea, inplikazioa bilatuz, auzolanaren espiritua sustatuz eta lorpenen eragile sentiaraziz.

- Hondakinen kudeaketaren prozesu osoan trazabilitatea ezagutzeko beharrezkoak diren bitartekoak eta esperientziak proposatu eta erraztea

- Hondakinen kudeaketan eskaintzen diren zeritzuen nondik norakoak eta kostua ezagutzeko baliabideak ematea

- Hondakinen printzipioekin bat datorren, koherentea eta errespetutsua den eredu ekonomikoaren sorrera eta garapena bultzatzea

Helburu horiek lortzeko, beste batzuen artean, honako jarduerak burutzea aurreikusten du Hobekik: esperientzia trukaketa, mintegi eta lan bilguneak antolatzea, elkartekideei proiektuak burutzen laguntzeko laguntza ematea, edota elkartearen helburu eta jarduerekin bateragarri eta bat datozen beste elkarte, sare eta gainontzeko erabilerekin kooperazioharremanak ezartzea.

Gaur egungo HOBEDI-kide dira Adunako Udala, Antzuolako Udala, Anoetako Udala, Berastegiko Udala, Berriatuako Udala, Donemiliagako Udala, Hernaniko Udala, Itsasondoko Udala, Larrabetzuko Udala, Leintz Gatzagako Udala, Oñatiko Udala, Oiartzungo Udala,

Segurako Udala, Usurbilgo Udala eta Zaldibiako Udala. Debagoienean hortaz, jada 3 udalerrri badira Hobeki-kide.

Jakina denez, Debagoienan hondakinak biltzeko zerbitzu mankomunatu ugari eskaintzen ditu Mankomunitateak (bere estatutuetan jasotako xedeari jarraiki), ahalik eta modu jasangarrienean egiteko norabidean, eta honako helburuak ditu finkatuta:

- Zero Zabor filosofiaren norabidean, hiri hondakinen gutxitze, berrerabilpen eta birziklapenera bideratuta dauden ekimenak bultzatzea.

- Gaikako bilketaren bidez hondakinen zati balorizagarriak edo/eta arriskutsuak berreskuratzea, eta ingurumenaren aldetik kudeatzeko era jasangarrietara bideratzea (berrerabiltzea, birziklatzea, balorizazio energetikoa, konposgintza...).

- Herritarrari kalitatezko zerbitzua ematea: eroso, eraginkorra, hurbilekoa, garbia, erabilterraza eta bide publikoan eragozpenik sortuko ez duena.

Goian aipatu Hobeki Elkartearen printzipio eta helburuekin bat egiten du Debagoieneko Mankomunitateak. Horregatik, eta elkarte kide izaerak Debagoieneko

Mankomunitateak hondakinen kudeaketan finkatuta dituen helburuetan laguntza eta lankidetzatza ekarriko duela ulertuta, proposatzen da kidetzatza horretan aurrera egitea.

Gogoratu behar da bestalde hondakinen kudeaketari lotuta Europatik datozen zuzentarauek aldaketak ekarriko dituztela gurera ere. Horrela, apirilaren 8ko 7/2022 Ekonomia zirkular baterako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko Legeak xede gisa du hondakinen sorrera eta horiek sortzearen eta kudeatzearen ondoriozko inpaktu kaltegarriak prebenitzea eta murriztea, baliabideen erabilerearen inpaktu globala murriztea eta erabilera horren eraginkortasuna hobetzea, azken batean, ingurumena eta giza osasuna babesteko eta ekonomia zirkular eta karbono gutxiko bateranzko trantsizioa egiteko enpresa-ereduak, produktu eta material berritzaileak eta jasangarriak erabilia (...)

Legearen xedearekin bat datoz Hobekiren eta Mankomunitatearen helburuak. Helburu horiek lortze bidean baina zenbait erronka eta betebeharrak jasotzen ditu 7/2022 legeak, eta tartean sortzez besteko ordainketaren bidea urratzen du, legea indarrean sartu eta 3 urteko epean abiatu behar dena. Honako hau xedatzen du, hitzez hitz, 11.artikuluaren:





## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

*En el caso de los costes de gestión de los residuos de competencia local, (...), las entidades locales establecerán, en el plazo de tres años a contar desde la entrada en vigor de esta ley, una tasa o, en su caso, una prestación patrimonial de carácter público no tributaria, específica, diferenciada y no deficitaria, que permita implantar sistemas de pago por generación y que refleje el coste real, directo o indirecto, de las operaciones de recogida, transporte y tratamiento de los residuos, incluidos la vigilancia de estas operaciones y el mantenimiento y vigilancia posterior al cierre de los vertederos, las campañas de concienciación y comunicación, así como los ingresos derivados de la aplicación de la responsabilidad ampliada del productor, de la venta de materiales y de energía*

Erronka berriak datozkigu epe motzean hondakinen kudeaketan, Mankomunitateari, baina baita artikulua erreferentzia egiten dien tasak ezarri beharko dituzten udalei ere. Bide horretan orain arte erreferentzia egin zaien printzipio horiek izan behar ditu gidari Mankomunitateak; eta hala ditu Hobekik, honi lotuta 2023am antolatu dituen jardunaldietan ikusarazi den moduan. Jada bidean diren esperientziak partekatu eta elkartekideen esku utzi ditu baliabide horiek: Elkartearen estatutuetako 5. Artikuluan jaso legez, elkarlana, informazio, gogoeta eta hausnarketan trukaketa eta mintegi eta lan bilerak antolatzea baititu helburuak lortzeko jarduerak eta tresna. Guzti horregatik ere, printzipioak partekatzen ditugun neurrian, proposatzen da kidez, bestelako esperientziak bidelagun izango ditugulako Mankomunitatearen helburuak lortze lanetan.

Aipatu azkenik, alderdi ekonomikoari dagokionez, kidezaren urteroko zenbatekoa 6,000.- €takoa izango litzatekeela Debagoieneko Mankomunitateari dagokionean.

Kontuan harturik espedientean jaso diren honako txostenak:

- Idazkariaren lege txostena.
- Kontu-hartzailearen fiskalizazio txostena.

Aipatu guztia ikusirik, ondorengo

### PROPOSATZEN ZAIO GOBERNU JUNTARI

Lehenengoa: HOBeki Elkarteko Estatutuekin bat egin eta elkarteko kide bihurtzeko borondatea adieraztea.

Bigarrena: Hobeki Elkartean Debagoieneko Mankomunitateko ordezkari honako hauek izendatzea.

- Titularra:
- Ordezkoa:

Hirugarrena: Erabaki honen berri Hobeki Elkarteari jakinaraztea, eta egindako eskabidea

Puntua bozkatzeko dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ainhoa Lete, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Gorka Artola.

Kontra: 0

Abstentzia: 0





## DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

Beraz, aho batez onartzen dute.

**LEHENA.** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hsierako onarpena argitaratzea eta 15 eguneko epea eskaintzea alegazioetarako.

**BIGARRENA.** Hobeki Elkarteko Mankomunitateko ordezkariak izendatzea:

- Titularra: Garazi Etxeberria
- Ordezkoa: Edorta Zubizarreta

### **4.- Epele Zabortegian lixibiatuen lurrazaleko uren eta lurreko uren eta Bergarako garbiguneko eta San Balerio garajeko isurketa uren laginketa eta laborategi analisiak egiteko zerbitzuaren kontratazioa dela eta, administrazio klasularen plegua, plegu teknikoak eta gastua onartzea.**

**Epele zabortegian lixibiatuen, lurrazaleko uren eta lurpeko uren eta Bergarako garbiguneko eta San Balerio garajeko isurketa uren laginketa eta laborategi analisiak egiteko zerbitzuaren kontratu berria**

### **IKUSIRIK**

Kontratuaren gaia eta helburua: Epele zabortegian lixibiatuen, lurrazaleko uren eta lurpeko uren eta Bergarako garbiguneko eta San Balerio garajeko isurketa uren laginketa eta laborategi analisiak egiteko zerbitzua Unitate sustatzailea: Ingurumen Zerbitzua.

Kontratu mota: Zerbitzu kontratua Esleipena egiteko bidea eta modua: Prozedura irekia eta ohiko tramitazioa.

Baldintza orriak: Baldintza Agiri Administrazioak eta Teknikoak.

Araudi aplikagarria:

1. Azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea eta urriaren 12ko

1098/2001 Erregelamendua.

2. Administrazio baldintza zehatzen orriak.

Txostenak:

- Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoaren hasierako txostena.
- Idazkariaren lege txostena.
- Kontu-hartzailearen fiskalizazio txostena.

Kontratua esleitzeko eskuduntza:

Indarrean dagoen Debagoieneko Mankomunitateko Aurrekontu Exekuzio Arauaren 15. artikuluko 3. atalaren arabera, kontratu hau esleitzeko eskuduntza

Mankomunitateko Gobernu Juntarena da.

Aipatu guztia ikusirik, ondorengo

### **PROPOSATZEN ZAIO GOBERNU JUNTARI**





## DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

**LEHENA.**- Prozedura ireki eta ohiko tramitazio bidez, Epele zabortegian lixibiatuen, lurrazaleko uren eta lurpeko uren eta Bergarako garbiguneko eta San Balerio garajeko isurketa uren laginketa eta laborategi analisiak egiteko zerbitzua kontratatzeko espedientea onartzea.

**BIGARRENA.**- Aipatu kontratua gauzatzeko, jarduteko eta esleipenerako erabiliko oinarri bezala erabiliko diren Baldintza Agiri Administratiboak eta Teknikoak onartzea.

**HIRUGARRENA.**- Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 3.Xedapen Gehigarriaren 2. atalaren arabera, kontratazio hau aurretiazko tramitazio prozedura jarraituaz izapidetu da, 2024ko kontu sail hauen kontura: 3600.227.162.36.32, 3001.226.162.10.99 y 3004.227.162.20.03. Nolanahi ere, kontratuak irauten duen urte guztietarako aurrekontuetan kreditua egotea bermatuko da.

**LAUGARRENA.**- Lizitazioa Mankomunitateko kontratatzaile profilean argitaratzea

Puntua bozkatzeko dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ainhoa Lete, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Gorka Artola.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

### **Beraz, aho batez onartzen dute:**

**LEHENA.**- Prozedura ireki eta ohiko tramitazio bidez, Epele zabortegian lixibiatuen, lurrazaleko uren eta lurpeko uren eta Bergarako garbiguneko eta San Balerio garajeko isurketa uren laginketa eta laborategi analisiak egiteko zerbitzua kontratatzeko espedientea onartzea.

**BIGARRENA.**- Aipatu kontratua gauzatzeko, jarduteko eta esleipenerako erabiliko oinarri bezala erabiliko diren Baldintza Agiri Administratiboak eta Teknikoak onartzea.

**HIRUGARRENA.**- Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 3.Xedapen Gehigarriaren 2. atalaren arabera, kontratazio hau aurretiazko tramitazio prozedura jarraituaz izapidetu da, 2024ko kontu sail hauen kontura: 3600.227.162.36.32, 3001.226.162.10.99 y 3004.227.162.20.03. Nolanahi ere, kontratuak irauten duen urte guztietarako aurrekontuetan kreditua egotea bermatuko da.

**LAUGARRENA.**- Lizitazioa Mankomunitateko kontratatzaile profilean argitaratzea, 20 eguneko epean lizitatzailleek proposamenak aurkez ditzaten.

### **5.- Emma Cairns (Hezkuntzaren zerbitzua) ekintzaileari Arrasateko 2-ZM moduluan urte beteko luzapena ematea onartzea.**

Puntua bozkatzeko dute eta hau da emaitza:





## DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Alde (13): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ainhoa Lete, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Gorka Artola.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

**Beraz, aho batez onartzen dute gai ordeneko 5. puntua.**

### **6.- Francisco Jurado Recio (Azkar Fisioterapia) ekintzaileari Aretabaletako 5-AR moduluan urte bateko luzapena ematea onartzea.**

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ainhoa Lete, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Gorka Artola.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

**Beraz, aho batez onartzen dute gai ordeneko 6. puntua.**

### **7.- Jokin Mujika Baltzategi (Eroso banaketak) ekintzaileari baja eskaera onartzea.**

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ainhoa Lete, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Gorka Artola.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

**Beraz, aho batez onartzen dute gai ordeneko 7. puntua.**

### **8.- Lide Arenaza eta Maria Amasene CB (Hagoan Nutrizioa eta Osasuna) ekintzaileei Arrasateko 8-CM moduluan urte bateko luzapena ematea onartzea.**

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:





## DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

Alde (14): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ainhoa Lete, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Gorka Artola, Iñigo Ruiz.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

**Beraz, aho batez onartzen dute gai ordeneko 8. puntua.**

### **9.- Debagoiena ETE Digitala programare hedapenerako oinarriak onartzea.**

#### **“Debagoiena ETE Digitala” programaren hedapenerako oinarrien proposamena.**

"Debagoiena ETE Digitala" programa Debagoieneko ETEen eraldaketa digitala erraztera bideratuta dago eta ETEetan digitalizazioarekiko duten egoera diagnostikatzea, aurrerapausoak emateko planak eta ekintza konkretuak garatzeko ikuspegiarekin diseinatuta daude oinarri hauek. Horretarako enpresek ezagutu behar dute programak ematen dieten aukerak eta ondorioz jakitera eman behar dira bere edukiak. Hedapen hori egin ahal izateko oinarri batzuk onartu eta argitaratu behar dira. Helburu horrekin idatzi dira aurkezten diren oinarriak, arduradunak batzordekideen jakinean jartzen dituenak.

Aipatutako oinarrien proposamena irakurtzen dira eta Batzordekideek ontzat ematen dute.

Ondorioz Batzordekideek ondoko erabakia hartu dute:

"Debagoiena ETE Digitala" programaren onuradunak izatea nahi duten enpresa txiki eta ertainendako oinarriak Gobernu Juntara bidaltzea onesten proposamenarekin.

Puntua bozkatzeko dute eta hau da emaitza:

Alde (14): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ainhoa Lete, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Gorka Artola, Iñigo Ruiz.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

**Beraz, aho batez onartzen dituzte Debagoiena ETE Digitala Programaren hedapenerako oinarriak**

### **10.- Ondorengo espedienteen ofiziozko berrikuspenik ez dagoela onartzea:**

- 2015eko abenduak 15eko erabakia, ingurumen zerbitzuko arrazionalizazio plana onartzekoa.

- 2015eko otsailak 27ko Gobernu Juntaren erabakia, Lanpostu zerrenda aldatzekoa.







## DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

- 2016ko urtarrilak 12ko Gobernu Juntaren erabakia, 2016ko Lanpostuen zerrenda aldatzekoa.
- 2018ko azaroak 20ko Gobernu Juntaren erabakia, 2019ko Lanpostuen zerrenda aldatzekoa.

### Idazkariaren txostena:

#### Gobernu Juntari ebazpen proposamena

##### Aurrekariak

2023ko apirilaren 26an AEBk Debagoieneko Mankomunitateko funtzionarioak honako eskaera hau egin zuen:

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen V. Tituluan aurreikusitako Egintzak administrazio-bidetik berrikusteko prozedura bana abian jartzea ondorengo akordioak berrikusiz:

1. 2015eko otsailaren 27ko Juntan hartutako akordioa lanpostu zerrenda aldatzen duena.
2. 2015eko abenduaren 15eko 2.7 puntua arrazionalizatzeko programa onartzen duena eta honen ondorioz 2016ko urtarrilaren 12ko gobernu juntako 2.1 puntuan agertzen den hirugarren akordioa:

“Pertsonal Batzordeak proposatutako 2016. urterako Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda ere Aurrekontuarekin batera onartzea.”

3. 2018ko azaroaren 11an 2.4/2.5 puntuan agertzen den akordioa: “Pertsonal Batzordeak proposatutako 2019. urterako Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda ere Aurrekontuarekin batera onartzea.”

Kontuan harturik berraztertze prozesua abian jartzeko interesdunak aurkeztu dituen argudioak, eta horri dagozkion espedienteak aztertu ondoren, beharrezkotzat jotzen da ofiziozko berraztertze prozedura abian jartzea, aipatutako erabakien deuseztapenerako arrazoia egon daitekeela ikusirik, Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47. artikuluko xedapenaren arabera:

47. art. Erabateko deuseztasuna

e) Legez ezarritako prozedura edo kide anitzeko organoen borondatea eratzeko funtsezko arauak erabat alde batera utzita emandakoak.

2023ko maiatzaren 2ko Lehendakaritza Ebazpen bitartez Lehendakariak idazkari-kontuhartzaileari txostena egiteko eskatu zion, deuseztapeneko arrazoirik zegoen finkatzeko.

2023ko maiatzaren 9an idazkari-kontuhartzaileak txostena egin zuen.

2023ko maiatzaren 24an egindako ez-ohiko bilkuran ofiziozko berraztertze prozedura gai ordenan zegoen, baina Lehendakariak esan zuen kanpoko aholkulari bati txostena eskatu ziotela eta oraindik jaso ez zutenez, gaia bertan behera lagatzen zutela.

2023ko ekainaren 16ko ez-ohiko Bileran honako hau onartu zen:

LEHENA. 2016ko Lanpostuen Zerrenda eta plantilla organikoaren onarpenari dagokion ofiziozko berrikuspena izapidetzen hastea onartzea.

BIGARRENA. Interesdunei erabakia jakinaraztea, eta 15 eguneko alegazio epea eskaintzea.

Interesdunei jakinarazpena bidali zitzaizen alegazioetarako epea eskaintzeko.





## DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

2023ko abuztuan interesdunen alegazioak jaso ziren Mankomunitateko sarrera erregistroan.

2023ko urriaren 11an kanpo aholkulariaren txostena jaso zen.

Gaikuntza nazionalako lanpostuak arautzen dituen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.3 artikulua honela dio idazkariak txostena egiteko derrigortasunari buruz.

d) En todo caso se emitirá informe previo en los siguientes supuestos:

3.º Procedimientos de revisión de oficio de actos de la Entidad Local, a excepción de los actos de naturaleza tributaria.

Bestalde, 3.3.4 artikuluan honako hau xedatzen da:

4. La emisión del informe del Secretario podrá consistir en una nota de conformidad en relación con los informes que hayan sido emitidos por los servicios del propio Ayuntamiento y que figuren como informes jurídicos en el expediente.

Hori horrela, Debagoieneko Mankomunitateak kontratatutako kanpo aholkularia den Iraultza Bilbao Uriarteren txosten-proposamenarekin bat egiten du Mankomunitateko idazkari-kontuhartzaileak.

2023ko Urriaren 18an egindako Ohiko Gobernu Juntaren bileran aho batez onartu zen: LEHENENGOA. Idazkariaren txostena Gobernu Juntak bere egitea, eta Ofiziozko berraztertze espedientea Euskadiko Aholku Batzorde Juridikora bidaltzea, dagokion irizpena eman dezan.

BIGARRENA. Ofiziozko berrikuspen prozesua dela eta, prozedura ebazteko legezko gehienezko epea etetea onartzea, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatzen denetik irizpen hori jasotzen den arte.

2023ko abenduaren 15ean jakinarazi du txostena Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, ebazpena honako hau izanik:

“Ez dira ofizioz berrikusi behar, AEB jaunak formulatuta bezala, erabaki hauek: Gobernu Batzarraren 2015eko otsailaren 27ko Erabakia, 2015eko LPZ aldatzen duena; Gobernu Batzarraren 2015eko abenduaren 15eko Erabakia, Ingurumen Zerbitzua Arrazionalizatzeko Programa onesten duena; Tokiko Gobernu Batzarraren 2016ko urtarrilaren 12ko Erabakia, 2016ko LPZ aldatzen duena; eta Tokiko Gobernu Batzarraren 2018ko azaroaren 20ko Erabakia, 2019ko LPZ aldatzen duena.”

Kontuan izanik Administrazio Prozedura arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 legearen 106.1 artikuluan xedatzen dena:

1. Las Administraciones Públicas, en cualquier momento, por iniciativa propia o a solicitud de interesado, y previo dictamen favorable del Consejo de Estado u órgano consultivo equivalente de la Comunidad Autónoma, si lo hubiere, declararán de oficio la nulidad de los actos administrativos que hayan puesto fin a la vía administrativa o que no hayan sido recurridos en plazo, en los supuestos previstos en el artículo 47.1. Kasu honetan Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren txostenak ebazten du ez dagokion ofiziozko berrikuspenik, beraz, Gobernu Juntak ezingo du kontraktorik erabaki.

Bestalde, 2023ko ekaineko Gobernu Juntaren bileran, 2016ko Lanpostuen zerrenda eta plantilla organikoaren onarpenari dagokion ofiziozko berrikuspena aurrera eramatea onartu zen.

Gainontzeko espedientei buruz ez zen ebatzi.

39/2015 legearen 106.3 artikulua honako hau esaten du: “ El órgano competente para la revisión de oficio podrá acordar motivadamente la inadmisión a trámite de las





## DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

solicitudes formuladas por los interesados, sin necesidad de recabar dictamen del Consejo de Estado u órgano consultivo de la Comunidad Autónoma, cuando las mismas no se basen en alguna de las causas de nulidad del artículo 47.1 o carezcan manifiestamente de fundamento, así como en el supuesto de que se hubieran desestimado en cuanto al fondo otras solicitudes sustancialmente iguales”.

Prozedura honetan 2023ko ekainaren 16ko Debagoieneko Mankomunitatearen ez-ohiko Gobernu Bilerak ez zuen egin eskaeraren zati baten “izapidearen ez onartze arrazoitua” (inadmisión a trámite debidamente fundamentada). Beraz, Euskadiko Aholku Batzordeari dagokio irizpena ematea.

Hori guztia kontuan hartuta, proposatzen zaio Gobernu Juntari:

**LEHENENGOA.** Ondorengo espedienteen ofiziozko berrikuspenik ez dagokiola onartzea:

- 2015eko abenduak 15eko erabakia, ingurumen zerbitzuko arrazionalizazio plana onartzekoa.
- 2015eko otsailak 27ko Gobernu Juntaren erabakia, Lanpostu zerrenda aldatzekoa.
- 2016ko urtarrilak 12ko Gobernu Juntaren erabakia, 2016ko Lanpostuen zerrenda aldatzekoa.
- 2018ko azaroak 20ko Gobernu Juntaren erabakia, 2019ko Lanpostuen zerrenda aldatzekoa.

**BIGARRENA.** Interesdunei jakinaraztea.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (14): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ainhoa Lete, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Gorka Artola, Iñigo Ruiz.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, aho batez onartzen da:

**LEHENENGOA.** Ondorengo espedienteen ofiziozko berrikuspenik ez dagokiola onartzea:

- 2015eko abenduak 15eko erabakia, ingurumen zerbitzuko arrazionalizazio plana onartzekoa.
- 2015eko otsailak 27ko Gobernu Juntaren erabakia, Lanpostu zerrenda aldatzekoa.
- 2016ko urtarrilak 12ko Gobernu Juntaren erabakia, 2016ko Lanpostuen zerrenda aldatzekoa.
- 2018ko azaroak 20ko Gobernu Juntaren erabakia, 2019ko Lanpostuen zerrenda aldatzekoa.

**BIGARRENA.** Interesdunei jakinaraztea.

### 11.- Galdera eskaerak.

Ez dago.





## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Bilera bukatutzat ematen da 12:55an, eta akta honetan jasotzen dira bertan hartutako erabakiak, dagozkion efektuetarako.

Arrasaten, 2024ko urtarrilaren 18an.

**Lehendakaria**

**Idazkari-kontuhartzailea**

